

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3613

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Policlínica Gipuzkoa S.A.ren Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea galdutzat jotzen duena.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea arautu zen. Aitorpen horren bidez, emakumeen eta gizonen berdintasuna ahalbidetzen duten baldintzak sustatu nahi dira, bai eta berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzea ahalbidetzen dutenak ere; horretarako, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren alde, gizartean eta lan-eremuan sor daitezkeen ekimenak bultzatuko dira, aipatutako aitortzearen bidez.

Policlínica Gipuzkoa, S.A. erakundeak gutun batean adierazi du ez duela aurkeztuko 11/2014 Dekretuan oinarritzen den eskaria; beraz, egoera baloratuta, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea arautu zuen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrek xedatutakoa aztertu ostean, hau

EBAZTEN DUT:

Policlínica Gipuzkoa, S.A. erakundearen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea galdutzat jotzea, aitortpen berria epe barruan eskatu ez delako, hau da, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa bete ez delako (11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortzea arautzekoa).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Hortaz, ebazpenaren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hilabete biko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 3a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.